

Udalergi euskaldunak

MEDIKUEN ETA PEDIATREN LAUTIK BAT EZ DA GAI EUSKARAZ EGITEKO

UEMAk (Udalergi Euskaldunen Mankomunitateak), erakundeak berak biltzen dituen 76 udalergietan familia eta larrialdi medikuen eta pediatren euskara gaitasuna neurtu du. 76 udalergiak Hego Euskal Herrian daudenez, Osakidetza eta Osasunbideako profesionalak dira denak. 289 profesional zenbatu dituzte UEMAko udalergietan. 73 ez dira gai euskaraz aritzeko. Familia eta larrialdi medikuen %22 da gai ez dena eta pediatren %35.



Onintza Irureta Azkune

@oirureta

Profesionalen euskara gaitasuna jakiteko UEMAk Osakidetza eta Osasunbideako plantillak begiratu ditu eta langileok haien lanpostuetan zein hizkuntza eskakizun dituzten eta hori egiaztatuta duten ala ez aztertu du. Gerta daiteke ordeza (eta alboko taulan gertatzen dela ikusiko duzue), hizkuntza eskakizuna izan eta euskaraz aritzeko gaitasunik ez izatea, eta alderantzizko adibideak ere bada, bada hizkuntza eskakizuna eduki ez arren euskaraz egiteko gai diren medikuak. Egoera horiek xehetasun gehiagoz jakiteko asmoz, udalergietako euskara teknikariek, politikariek, osasun etxeetako langileekin eta herri-tarrek hitz egin dute.

2013an ere egin zuen ikerketa UEMAk eta emaitzak alderatzeko aukera izan du. Eneka Maiz Etxarri-Aranazko alkate eta UEMAko zuzendaritzako batzordekideak honela baloratu du bilakaera: "Ordudanik osasun etxe batzuetan egoerak hobera egin badu ere, beste batzuetan okerrera egin du edo bere horretan

irauten du". Bereziki larritzat ditu udalergietan profesional guztiak (gehienetan profesional bakarra dute, edo medikua edo pediatra) euskaraz egiteko gai ez diren adibideak.

Oporretan zer?

Eskuineko orrialdeko taulan agertzen diren kolore berde-gorriek profesionalen hizkuntza gaitasuna duten ala ez adierazten dute, eta alboko oharra irakurrita jakin daiteke, eskakizuna albo batera utzita, medikua edo pediatra euskaraz egiteko gai den ala ez. Hala ere, horrek ez du esan nahi, demagun Etxalarren, urte osoan pediatra euskalduna dutenik. Zer gertatzen da ordezkapena egin behar denean, esate baterako medikua oporretara doanean? Bada behin baino gehiagotan ordezkoak euskara ez dakitenak izan dira. Joan den udan Azpeitiak, Segurak eta Aulestik horrelako egoera salatu zuten eta tankera berean ziren udalergiak dozenaka ziren.

Jubilazioa da beste kezka iturri bat.

Batetik, hurrengo medikua euskalduna izateko aukera da, eta bestetik, okerre-rra egiteko arriskua dago; badoana euskalduna da eta etorriko dena ez jakin. Horregatik, UEMAk eskaera zehatza egiten die Osakidetza eta Osasunbideari, "udalergi euskaldunetan egingo diren kontratazio berri guztietan, behintzat, profesional euskaldunak kontratatuta daitezela".

Nafarroan hizkuntza eskakizunak urri

Mediku euskaldunak eskualdeko kokatzen ditu Nafarroako Gobernuak. Alabaina, herritarrek ez dira pozik, horrek ez duelako bermatzen arreta euskaraz jasoko dutenik. Gobernuak 100 lanpostu ateratu ditu lehiaketa publikora eta horietatik hamabik dute hizkuntza eskakizuna.

Taulan duzue UEMAren ikerketaren emaitza. Ez dituzue mankomunitateko udalergi guztietako datuak aurkituko, baizik eta zerbitzua euskaraz emateko arazoak dituzten osasun etxeak. ■

